

#### 4.DIRU SARRERAK

Bezeroa, arroparen truke eskatzen diogun dirua ordaintzeko prest egongo da, inbertsio on bat iruditzen zaigulako eta prezioa justua delako. Gure enpresak, modu desberdinetatik lortuko ditu diru sarrerak: aktiboen salmenta, erabileragatiko saria, harpidetzagatiko saria, publizitatea... Prezioak dinamikoak izango dira, arroparen arabera eta diseinuaren arabera aldatzen direlako.

Proiektua hasi ahal izateko lokal bat beharko dugu, horrek inbertsio handia izango du eta horretarako ondo antolatuta egon behar da dena ondo joateko eta proiektua aurrera eramateko. Diru hori udan egindako aldi baterako lanaren soldatetik lortuko dugu.

Hasieran ez dugu soldatarik izango mozkinak izan arte. Irabaziak izaten hasten garenean gure soldata edukiko dugu eta jendea kontratatzen hasiko gara. Mozkinen %60 kostu finkoetan inbertituko ditugu, hau da, langileen soldatetan, lokala... ;bestetik, %35 kostu aldakorretan inbertituko ditugu (lehengaiak, argia... );eta, azkenik, %5 kutxa moduan gordeko dugu larrialdietarako.



